AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

SAN IGNAZIO AUZOA HOBETZEKO PROPOSAMENA: klima-aldaketara egokitzeko konponbide berritzailea aplikatzea, Europako LIFE proiektuaren baitan.

PROPOSAMENA AURKEZTU ETA BIZILAGUNEKIN KONTRASTATU

2019ko urriaren 10ean, ostegunean, 18:30etik 20:00etara.
Legazpiko San Ignazio auzoko eskoletan

Gaur San Ignazio auzoan egin dugu Legazpiko Agenda 21eko Foroa.

Oraingoan bertatik bertara aurkeztu eta bizilagunekin kontrastatu dugu Udalak aurkeztutako proposamena, auzoari balio erantsia eman nahi diona. Hirigintza mailako esku-hartze berritzailea da eta, era berean, Europako LIFE proiektuaren baitan, auzoa klima-aldaketaren eraginera egokitzea ahalbidetuko da.

Dokumentu honetan bileraren laburpena eta ideia nagusiak jasotzen dira, honako eskema jarraituz:

EDUKIEN ESKEMA:

1. Esparrua, helburua eta planteamendua
2. Parte hartu duten pertsonak
3. Esku-hartzeko proposamena aurkeztu eta kontrastatu
4. Eskerrak ematea eta amaiera

1. ESPARRUA, HELBURUA ETA PLANTEAMENDUA

ESPARRUA

Legazpiko udalak San Ignazio, Arantzazu, San Martin eta San Jose auzoak pixkanaka berritzeko plana du. Lau auzo horiek herriko industria-ondare dira eta babestuta daude.

Era berean, Legazpiko Udalak klima-aldaketaren aurkako politikak egiteko konpromisoa hartu du, Legazpi Klima 2030 Planarekin eta arintzeko eta egokitzeko planean jasotako ekintzekin. Gainera, 2017tik aurrera, Legazpi Europako "Good Local Adapt" proiektuan hartzen ari da parte, Amurrio eta Balmasedako udalerriekin batera. Proiektuaren helburua konponbide espezifikoak lantzea da: herria planifikatzeko, eraikinak eraberritzeko eta legeria berria egiteko; hori guztia udalerri txiki eta ertainak klima-aldaketara egokitu daitezen.

Horretarako, eta San Ignazio auzoko bizilagunek ere parte hartu duten lan-prozesu baten ondoren, Ekinn enpresako lantalde teknikoak San Ignazio auzoko erdiko kalean aplikatuko den **hirigintza-arloko konponbidearen lehen zirriborroa** egin du.

HELBURUA ETA PLANTEAMENDUA

Hauxe izan da Foroaren helburu nagusia:

Hasierako zirriborroa aurkeztea eta Foroan parte hartu duten bizilagunekin ikuspun orokorra eta besta kontu zehatzago batzuk kontrastatzea.



Horretarako, Ekinn enpresako lantaldeak proposatutako konponbidearen haiserako azalpen batekin hasi gara: lortu nahi diren helburuak, zein irizpidetan oinarritzen den eta planteatzen den esku-hartzea. Segidan, bertaratu direnekin elkarrizketarako espazioa ireki da.

Lortutako emaitzak urtea amaitu baino lehen idatziko den behin-betiko proiektua osatzeko erabiliko dira. Proiektua 2020an gauzatuko da eta aurrekontu mugatua izango du. Udalak jarritako eta Europar Batasunetik etorritako dirua erabiliko da horretarako.

2. PARTE HARTU DUTEN PETSONAK

48 pertsona	25 emakume	23 gizon

Bilerara etorri diren gehienak San Ignazio auzoko bizilagunak izan dira; alboko auzoetatik (Arantzazu) ere etorri dira batzuk eta horiez gain, Tokiko Agenda 21eko Foroko ohiko kideak egon dira. Denen artean udalerriaren ikuspegi bateratua jaso da.

Eskerrik asko guztioi!

BIZILAGUNAK:

Xabier Baztarrika (Buskabaso) – Rafael Gomez (Buskabaso) – Manuel Fernandez – Jose Luis Roa Elorza – Roberto Gonzalez – Javier Arrieta – Amalia Fraga – Mª Dolores Larrion – Manuela Villar – Jose Luis Dominguez – Edurne Etxeberria – Mª Carmen Eceolaza – Adela Guzman – Josa Angel Senosiain – Feli Andueza – Margari Legarre – Jesus Arrazola – Concepcion Escobar – Benita Santa Ageda – Miren Pildain – Antonio Aceituno – Karmele Aztiria – Jone Galarza – Angel Sagastizabal – Floren Gutierrez – Eneritz Lopez de Alda – Elena Casales – Angel Aldasoro – Javi Galindo – Juan Ramon Mujika – Ane Sagastizabal – Lucía Areizaga – Felix Telleria – Isabel Tatiegi – Juan Pedro Agirre – Juanjo Baskaran.

ARDURADUN POLITIKOAK ETA UDAL TEKNIKARIAK:

Koldobike Olabide (alkatea) – Ibon Alcelay (zinegotzia) – Edurne Gonzalez (zinegotzia) – Javier Iraeta (zinegotzia) – Oscar Valbuena (zinegotzia) – Ane Miren Agirrezabal (nekatzaritza eta hirigintzako teknikaria) – Ane Mendinueta (udal arkitektoa) – Inma Hernandez (industria, merkataritza, turismo eta ingurumen teknikaria).

LAGUNTZA TALDEA:

Jon Laurenz eta Rafa Etxebarria, Good Local Adapt proiektuko Ekinn taldeko kideak; eta Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea, dinamizazio-lanetan.

3_ Oharrak

3. PROPOSAMENA AURKEZTU ETA KONTRASTATU

PROPOSAMENA AURKEZTU

Ane Mendinueta udal arkitektoak eta Jon Laurenz Ekinn taldeko arkitektoak San Ignazio auzoko erdiko kalean aplikatu nahi den konponbidea azaldu dute eta, batez ere, irizpideak eta helburuak adierazi dituzte.

IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK:

Zer bilatzen du konponbideak?:

- Hiri-espazio adiskidetsua izan dadila eta ingurunea berriz naturalizatzea; gaur egun protagonismo handia du autoak.
- Oinezkoek euren lekua berreskura dezatela kale nagusian, aparkalekua berrantolatuz –eta egun dauden aparkaleku-kopurua mantenduz–.
- Naturan oinarritutako teknikak berreskuratzea, berrikuntza-irizpideak erabiliz eta klima-aldaketara egokituz.
- Lurpeko instalazioak berritzea eta hobetzea.

PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA:

Hauxe da proposatzen dena:

- **Dauden aparkalekuak berrantolatzea,** leku-kopurua mantenduz eta estetikoki kalea adeitsuagoa eginez.
- **Kalearen erdialdean koexistentzia bide bat sortzea eta** lorategian, gutxi gorabehera, **oinezkoentzako 1,7 metroko ibilbidea egitea**; horrela, oinezkoak ez dira errepidetik ibiliko. Edozelan ere, koexistentzia-bidea egongo da eta oinezkoek izango dute lehentasuna.
- **Zoladora iragazkorra jartzea,** galtzadan nahiz aparakalekuetan, **eta guztia maila berean** –autoen eta oinezkoen koexistentziarako gunea sortuz-.
  - Klima-aldaketara egokitzeko neurri horrek ingurunean azalera irazgaitza murriztea ahalbidetuko du eta euri-ura era jasangarrian jaso eta sarera bideratzea erraztuko du –hormatxo aldean-.

- Zoladura iragazkorra mota desberdinetakoa izan daiteke, eta San Ignazio auzorako egokiena zein izan daitekeen aztertuko da. Horrezaz gain, zaindu egingo da zoladuraren malda urak erraz jaso daitezen.

- **Dauden zuhaitzak mantentzea eta berriak landatzea**, itzala egon dadin eta klima-aldaketaren eraginetara egokitzeko; horrek ez du oztopatuko kaletik ibiltzea eta kalea erabiltzea baita auzoan jaiak ospatzen direnean ere.
- **Erdigunean pergola antzeko bat jartzea parkearekin lotura eginez; helburua itzala izango duen egonleku bat sortzea da.** Pergolan eserlekuren bat jarriko da , atseden hartzeko eta goiko eskaileretatik parkera iritsi ahalko da eta kalean topaleku txiki bat sortuko litzateke horrela.
- Lurpeko **instalazioak berritzea**.

Gainera, **beste 3 kontu** planteatzen dira; proposamenarekin zerikusia dute baina ez dute hura gauzatzea baldintzatzen, hau da, proposatutako konponbidea gauzatu ahal izango da, kontu horiei buruz edozen erabaki hartu arren.

Hauek dira 3 kontu horiek:

1. **Hondakinen gaikako bilketarako edukiontziak lekuz aldatzea** proposatzen da; gaur egun erdigunean daude eta kalearen mutur batera eramango lirateke.
   - Neurri horrekin erdigunea libratuko litzateke eta kamioiak ez lirateke bertatik pasatuko; beraz, auzokideentzako arriskua gutxituko litzateke eta zoladura zaindu.
   - Eta, ordain gisa, 1 edo 2 aparkaleku kenduko lirateke eta bizilagun batzuk urrunago izango dituzte edukiontziak.
2. **Adierazitako puntuan Itxaropenetik kalera sartzea mugatzea** proposatzen da. Autoen igarobidea murriztea ahalbidetuko du horrek, pasabidea erabat itxi gabe.



3. **Parketan auzo-baratzea sortzea** proposatzen da; baratze hori bizilagunek kudeatuko eta zainduko lukete.

Iruditan, honela geratuko litzateke auzoko erdiko kalea:



Esku-hartu eta gero kalea nola geratuko litzatekeen

Xehetasunak: zoladura pergola, zuhaitzak...



BIZILAGUNEKIN KONTRASTATZEA, AZKEN PROIEKTUA ZEHAZTE ALDERA

Aurkezpenaren ondoren, denbora-tarte bat ireki dugu **elkarrizketarako eta guztion arteko hausnarketarako**. Bertaratu direnek zalantzak partekatu dituzte; eta elkarrekin, hainbat kontu eztabaidatu ditugu, taldeko gehienen iritzia jasotze aldera. Hona hemen ideia nagusiak:

BERTARATUTAKOEN ZALANTZAK ETA IRITZIAK PROPOSAMENAREN GAINEAN

- **Proposatutako oinezkoen ibilbide berria:** erabiliko da? Beste aukerarik ez dagoenez, auzoan galtzadatik joatea da ohikoena eta hori arriskutsua da. Ibilbide berria erabiltzen bada, parke aldera hesiren batekin edo babestuta egon beharko litzateke. Horren haritik, teknikoki egiaztatuta dago autoentzako pasabidearen zabalera murrizten bada, haien abiadura ere murriztu egiten dela.
- **Pergola**: zein da bere benetako erabilera? Gaur egun kale hori igarotzen den kalea da eta ez da egonleku bat. Horren haritik, agian zentzu handiagoa du pergola hori parkean jartzea.
- **Hezetasunekin kezkatuta:** drainatze-sistema erabiliz euri-ura jaso eta bideratzeko ideia taldearen gustukoa da; beti ere, hezetasun-arazoa eta auzoko zenbait eraikinetako atarietan urarekin duten arazoa okertzen ez bada. Halaber, kezka sortzen du parkeko arkupetan dagoen hezetasunak. Kontu hori lehentasunezkoa da taldearentzat eta kezka handia sortzen duen kontua da.
- **Landaredia eta zuhaitzak**: San Ignazio auzo adeitsua da. Era berean zuhaitzek atseginak egiten dituzte kaleak baina, beti ere, igarobidea oztopatzen ez badute eta aparkalekuak kentzen ez badituzte.
- **Obrek kezka sortzen dute,** hainbat eraikinetako zimenduen egoera kontuz ibiltzekoa delako. Beraz, obra hasi aurretik egin beharreko azterketak egingo direla adierazi da, une oro segurtasuna bermatuta egon dadin.
- **Zabor-edukiontziak**: arrazoituta dago lekuz aldatzeko egin den proposamena, batik bat zabor-kamioiak kaletik pasatu beharra izan ez dezaten; hobekuntza handia izango litzateke hori –udalerriko beste eremu batzuetan eragina izan dezakeen arren-
- **Auzo-baratzea**: parke batean baratzea jartzea ez dela ideia ona adierazi da. Zaila da gune desberdinen arteko elkarbizitza -jolasteko gunea, egoteko gunea eta baratzea-. Bigarren mailako proposamentzat hartzen da hori.

PROPOSAMENAREN GAINEAN BERTARATU DIRENEK DUTEN ZALANTZAK ETA IRITZIAK

- Kale nagusian esku-hartzeaz gain, ingurunean badira **hobetzeko bestelako behar eta aukerak**. Adibidez:
  - Goialdeko espaloiak hobetzea.
  - Parkea txukuntzea –zuhaitzak eta eserlekuak- eta bertako irisgarritasuna hobetzea. Eremu horren erabilera bultzatu beharra.
  - Puntu zehatzetan hezetasunarekin eta ura sartzearekin dauden arazoak konpontzea.
  - Zenbait puntutan eusteko hormaren egoera hobetzea –kontu hori korapilotsua dela argitu da, babestuta dagoen auzoa delako-.
  - Goiko plazatik behekora iristeko pasabidea ez da irisgarria.

Guztiarekin, eta bertaratutako gehienen iritzia aintzat hartuta, segidan **azken proiektua egitean kontuan hartuko diren gaiak** jaso dira:

FOROAN PARTE HARTU DUEN TALDEAREN USTEZ, AZKEN PROIEKTUAN SARTU BEHAR DIREN ELEMENTUAK

- Egokia ikusi da **aparkalekua antolatzeko proposatu den konponbidea, zoladura iragazkorra** jarrita.
- Proiektuan **oinezkoentzako pasabidea eta espaloia** sartzea egokia ikusten da, baranda batez babestuta.
- **Zuhaitzat sartzea** diseinuan, itzala sortzeko eta klima-aldaketara egokitzeko.
- **Zabor-edukiontziak** kalearen beste muturrera eramatea.
- **Itxaropenetik datorren bidetik kalerako sarbidea mugatzea,** ibilgailuen igarobidea murriztuz.
- Pergola jarriz gero, hobeto aztertu beharko litzateke hura parkean jartzearena.
- Obrak egin aurretik eta egin bitartean ondo zaindu behar dira **segurtasun-kontuak**.

4. ESKERRAK EMATEA ETA AMAIERA

Bilera amaitzeko eskerrak ematen diogu taldeari egin duen lanarengatik. Azken proiektua prest dagoenean, hura ekartzeko konpromisoa hartzen dugu.

MILA ESKER GUZTIOI!